

Ondoren, GAIKER zentru teknologikoan lan egiten duten pertsonentzako homenaldi txiki bat, 2008. ean EFQM Excellence Award-ean Prize-a eskuratzegatik.

### *Sir Keigarren garaikurra*

Kroniketan idatzita dago Artagon Erregeak, denbora gutxira, urteen poderioz, bere ahalmenak behera etortzen hasiko zirela ikusita, bere zaldunak bildu zituela eta honela esan ziela: “dakizuenetz, ez dut berezko oinordekorik nire tronurako, eta, horregatik, tronua zuen artean ausartenari uztea erabaki dut, eta hori, gaua heldu orduko herensuge baten burua ekartzen didana izango da”.

Zalaparta handia sortu zen zaldunen artean: batzuek esaten zuten hutsik egiten ez zuten moduak ezagutzen zituztela herensugeekin amaitzeko; beste batzuek, gaztetan asko hil zituztela esaten zuten; beste talde batean eztabaidan ari ziren, herensugerik basatienak non zeuden argitzeko; beste batzuek adierazten zuten jada desagerturik zeudela, eta beste batzuek, inoiz ez zirela existitu, eta lelokeria bat zela gaztelutik urruntzea bilaketa kimeriko horretarako...

Sir Keigar salbuespena zen, izan ere, minutu luzez aparte egon zen, bere barrurako gogoeta eginez. Ondoren, bakar-bakarrik, zubi altxagarrirantz joan zen. Bertatik, ur-hesiaren ertzetan zeuden krokodilo basatiak ikusi zituen, haien arteko handiena zein zen aztertu, bere ezpata atera eta haren gainera salto egin zuen. Piztiak sortu zuten iskanbilaren ondorioz erregea eta zaldunak gazteluko almenara hurbildu ziren, eta bertatik eszena osoa ikusi zuten.

Handik denbora gutxira, Sir Keigar tronuko aretoan sartu zen, narrastiaren burua zeramala. Zaldunak kexaka eta txantxaka hasi ziren: hori ez da herensugea, muskerra baizik, ia sugandila bat; ez zenuen eguzkipean erdi lo dagoen animalia gaixoa hil behar; zure aurka salaketa jarri beharko genuke, animalia-hiltzaile izateagatik, naturako paladinen ordenaren aurrean; ez du merezi horrelako zerbaitegatik ezpata odolez zikintzerik...

Artagon Erregeak bere ahotsa altxatu zuen beste guztien gaineratik: “Zaldunok, egia da Sir Keigarrek ekarri digun garaikurra krokodiloa dela, eta ez herensugea, eta, ondorioz, nire erreinua ez dago bere esku... oraindik, baina gainerakook ezin izango duzue denborarik galdu, eta eguzkia ezkutatu aurretik bera baino ausartagoak zarela erakutsi beharko duzue”.

Mikel Ugalde, EUSKALITeko zuzendaria